

ASTEKARIA - 2006ko irailaren 29an - XI. urtea - Usurbil, 250. zenbakia

www.noaia.com

Noaia!!



Beste bi domina
Amador Granadorentzat



Asteburu honetan hasiko dira
San Praixku jaiak

Etorn ezagutzera 

HARATEGIKO BEHEZTATUNARI
 BAJERTEKO TCAHAL URDUA, BEHI
 TOLUETAK, EINEKO ASKUNEA ETA
 ETKEAN EGINDAKO PRODUKTUEN
 ALKESA ZABALA.

URDAITEGIKO BEHEZTATUNARI
 UNBU ETA EGONITAKO
 URDAIAZPIKOAK, BERTAKO ETA
 KANPORA GALTAR, URDAITEGIKO
 PRODUKTUEN ALKESA BERTUA.

FRUTADENDA BEHEZTATUNARI
 BERRAKO BARRAZI ETA FRUTEN SELEKzio
 PASAGARRA, DENA KALITATE
 HANDIENAREKIN SERBITZU HOBERE-
 NAREKIN ETA NAUTIKAZKO FLEKISTAN.

INAUGURAZIOA
URRIAK 4 ASTEAZKENA
 12:00TATIK 20:00TARA

Zubiaurrena, n°2 • ☎ 943 36 55 81 • 40170 Urduliz



ATXEGA
 pescados y mariscos, s.a.

ondo pasa
 San Praixkuak!

mutiozabal etxea, 17
 TEL. 943 36 10 81
 FAXA. 943 36 57 04



itsaski fresko eta egusia+trainera eta txakolina

txirpi ziaboga
AGINAGA

¡Llévate nuestra **TRAINERA** **TRANQUILA**
 por **40 €**!



40 €

Eraman gure **ZIABOGA TRAINERA**!

Telefonoz egin eskaera • 943 372 808
 943 372 808. Haz tu pedido por telefono

KM N

C n r tul t ns

n E sMrtn
 t rGu xVv s
 Mr nL t Vt r
 J nL l r r
 l tzL l r r

C m r Univ rsty-k
 Frst C rtfc t
 n tz tkZ I N K

Tlf 3 371 2. zu urr n . usur l

Badok Amairu !!

Ana Urdangarin: "Bidaia gabe, ezingo nuke bizi"

Ana Urdangarin bidaia zale amorratua dugu. Bizkarre ingurua miresten badu ere, urtero atzerria joateko tartea hartzen du; aurren, Tantzaniara doa.

1. JAKIRIK GOGOKOENA.
 Pasta.

2. OHITURA TXARREN BAT.
 Presaka bizitzea.

3. ZER GORDETZEN DUZU
 SAKELEAN?
 Ezer ez. Dena poltsan eramaten dut.

4. ZERTAN BERPIZTUKO
 ZINATEKE?
 Lehoi batengan.

5. ZERI DIOZU BELDURRA?
 Gaixotasunei.

6. MIRESTEN DUZUN
 PERTSONA.
 Mutil laguna.

7. EZIN ZAITEZKE BIZI...
 Bidaia gabe.

8. EGINDAKO EROKERIA
 HANDIENA.
 Oraindik egiteko dudana.

9. LIBURU BAT.
 "Cara robada". Kabuleko neska baten bizi esperientzia.

10. FILM BAT.
 "La milla verde". Aulki elektrikora daramaten preso baten bizipenak.



11. LEKU BAT.
 Ilargia. Hara iristeko dauden zailtasunengatik, bere xarma du.

12. HERRIKO LEKURIK
 EDERRENA.
 Bizkarreko malda.

13. URTARO BAT.
 Uda.

Noaia!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaerri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 Tlf: 943 36 03 21 / elkarte@noaia.com / www.noaia.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaia.com

Aldizkari koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaia.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaia.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaia.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zaloa Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Danberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
 Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Aritz Gorriti.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonbieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORJETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATUKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

AMADOR GRANADOREKIN SOLASEAN **5. OR.**

ELIZAKO ORGANO BERRITZEN **6. OR.**

URRIAREN 8AN, "BAT EGIN EGUNA" **8. OR.**

ARTZABAL, ZAHAR EGOITZA BERRIA **17. OR.**

IÑAKI EGAÑAK GERRAZ ESANDAKOAK **18. OR.**

KIROLDEGIAREN ESKAINTZA OPAROA **19. OR.**

DANTZA TALDEAREN DEIALDIA **21. OR.**



Gipuzkoako
 Foru Aldundiak
 diruz lagundutako
 aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



IDOIA TORREGARAI

Artaldea edo ardia?

Mundu xelebrea da gurea. Bizitza erdia gizartean txertatzen, artaldean “enkajatzan” saiatzen gara: gure ikaskideekin, koadrillarekin, lankideekin...

Txikitan nahiz eta futbola batere gustatu ez, (zu gehiago izan zara tenis zalea) hortxe aritzen zinen baloiari ostikoak nola ahala ematen, edo nahiz eta keak goragalea eman, zigarroari emandako zure lehen zurrupada kolektiboak izan zen. Noski, ez zenion esan inorri entrenamenduen ondoren zurekin dutxatzen ziren morrosko haietariko batzurengatik laguntasuna baino zerbait gehiago sentitzen zenuenik. Zure lagun onena ezkondu egin behar zuela eta koadrilak prestatu zenioten “despedida” izugarrian tartatik ateratako ilehori silikonatu harekin dantzatu eta mozkortu zinen, gauza bat zein bestea gorrotatzen baduzu ere; eta ia inork ez daki haurrek zure kirioetatik ateratzen zaituztelako baskonomia eginga duzula.

Zertarako? Ez dituzu ulertuko ez diren azalpen luze eta alferrikakoak eman nahi. Ez duzu, azken finean, artaldetik atera nahi. Errazagoa da horrela...

Xelebrea benetan gure mundu hau. Bizitzaren beste erdia gurasoek, ohekideek, lagunak, psikologoek eta komunikabideek norbait berezia, artaldetik bereizten den ardia zarela, izan behar duzula, transmititzen dizute. Eta zu zeu ere besteengandik desberdin egiten zaituzten ardi-larru eta zintzarriak topatzen saiatzen zara, eta sinestu egiten duzu berezia, bakarra zarela: horegatik zure maitasun istorioa inork aurretik bizi gabekoa iruditzen zaizu; daukazun autoa, mugikorra eta arropa zuretzat apropos diseinatutakoak dira; oportetarik ekarritako hamar argazki-karreteetan gordetako irudiak inoiz ikusi gabekoak; zure pentsamenduak, inolako mugapen ez iragaitzetatik pasa gabekoak...

Artaldea eta ardia, artzainaren menpe beti?

Ainhua Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Idolia Torregarai - Jose Piñas

Ika-mika !

Egiaren garraztasuna

Azken aldi honetan, tamalez nahi baino gehiago irten beharra izan dugu komunikabideetan, ez “pertsonaje” bihurtzeko asmoz, norbaitek esan duen bezala, baizik eta gezurra eta prepotentzia salatzen. Ez pentsa jarrera hori dugunoi, erraza egiten zaigunik salaketa hauek gautzea. Boterean daudenak egiten dutena defendatzeko dena prest dago, baina hauen handikeriak agertarazteko, zentsura bizi bizirik mantentzen da. Honen adibide bezala lehengo irailaren 15ean Zubietan eta aste bete lehenago Diputazioaren aurrean eman genituen prentsaurrekoak. Zubietara, behintzat komunikabide pila azaldu zen, baita ETB ere. Telebista honek dena ederto jaso zuen baina bota ezer ere ez. Hori da guztion artean ordaindutako telebista batek bere profesionaltasuna erakusteko modua. Hala ere, oztopo hauek gaindituz, lortu dugu neurri batetan behintzat, jendearengana iristea, eta hiri hondakinen gainean moldatutako gezur borobila salatzea. Hala ere zeharo harritu nau, Usurbilgo Alkate jaunak, azken albiste hori ez jakiteak, Oiarbide Jauna bere alderdikide izan da. Ez da lehendabiziko aldia. Orain dela bi urte-edo, erraustegirako “Usurbilgo Arpietako” kokapena aukeratu zutenan berdina gertatu zitzaion eta.

Zubietako prentsaurrekoan esan genuen

bezala, zaborren auzi honetan, Zubietarrok hasieratik jo genuen mamira; alternatiba guztiak aztertu, eta gaika egindako bilketa mota eta konpostatzea aintzat hartu genituen. Beste lekuetan jadanik probatua zegoena, Zubietan jartzeko ahalegina egin genuen, baina Batzarrek ez zuen horretarako ahalmen juridikorik, eta Usurbilgo eta Donostiako udalek laguntza ukatu zigiten. Pasatakoak ahaztu eta gero, Usurbilgo udalari berriro ere gure laguntza eskaintzeko prest agertzen gara. Aukeratu Usurbilen nahi duzun auzoa, jarri baliabideak, eta konpromisoa hartzen dugu auzo horretatik hasi, eta Usurbil eta Zubietako guztia erantzeko, tokira egokitutako proiektu alternatiboak prestatzeko. Gainera, bertan bildutako materia organikoa konpostatzeko, Zubietako kokagunea ere eskaintzen dugu. Ez du balio San Markosi konpetentziak pasa direla esan, eta begira gelditzea, ezer egin gabe eta besteei egiten utzi gabe. Lanerako gogoia izanez gero, 6 hilabeterako zaborra biltzen hasi daiteke baina, noski, aurretik lan handia eginez gero. Horretarako lehenbizi norberak sinistu egin behar du, eta gero ahalegin guztiak egin. Gaiak garrantzi nahikoa baduela uste dut. Jendearen iritzia jakiteko, eta herriaren partehartzea bultzatzeko, egin ezazue Pleno monografikoa gai honi buruz, ahal

den jende gehien bilduko den egunean eta orduan, denon artean eztabaidatzeko.

Zubietako gaiak jorrazteko berriz, Herri-Batzarrekoak aspaldi ari gara ahaleginak egiten, Batzar Iraunkor bat osatzeko bi udalekin. Zubietarekin zerikusia duen gai guztiak batzorde horretan eztabaidatzea da gure nahia, baina oraindik ez dugu lortu. Azkeneko bilera martxoaren 20an izan zen. Bi hilabetez eskean ibili ondoren, bilera hartako akta jaso genuen. Berrirorik ere, irailaren 20an bildu berriak gara. Bilera egin bai, baina gai guztiak utzi genituen bezala zeuden. Sei hilabete pasa ondoren ez dute ezer aurreratu, ezta azkeneko bilerako aktan idatziz jasotako konpromisorik bete ere. Hala ere, Zubietarren aurrean azkeneko urtetako azterketa sakona egiteko prest gaude. Gainera garaia ere aproposa da. Lokal eder bat inauguratzeko badugunez, Usurbilgo Alkate Jaunari esan nahi diogu, ohore handia izango litzatekeela guretzat, lokal hori berak inauguratzea, Usurbilgo udalaren eta Herri-Batzararren arteko elkarlanaren berri emateko. Horretarako berari ondoen datorkion larunbata batean egiteko prest gaude. Oraingoan ere, Zubietarrok zain geratuko gara.

Imanol Azpiroz

Zubietako Herri-Batzarreko lehendakaria

Amador Granadok bi domina ekarri ditu Suitzan jokatu den Munduko Txapelketatik

Irailaren 18an iritsi zen Usurbila. 10 egunez Suitzan izan da, Aigle hirian jokatu den Munduko Txapelketan. Txirrindularitza egokitu-tuan, onenetarikoa baita Amador Granado. Emaitzak hor daude. Suitzatik bi domina ekarri ditu. Sprint olinpikoan zilarrezkoa eskuratu zuen eta kilometroko distantzian, brontzezkoa.

NOAUA! Gustura itzuliko zinen Suitzatik, ezta?

Amador Granado. Kilometroko distantzian, lehena geratzea zen nire helburua. Minutu eta 12 segundoko marka hautsi nahi nuen. Lortu dut, ia segundo bat jaitsi dut baina ez dut urrezko domina eskuratu. Kontua da txirrindulari gazte bat azaldu dela aurretik, Jody Cundy, eta munduko errekorra ezarri du. Jiri Jezek txekiarrak ere lan txukuna osatu zuen eta azkenean brontzezko dominarekin konformatu behar izan dut.

N. Akaso lan hobea egitea espero zenuen.

A. G. Bai hala da, baina azkenean nik nire lana osatu nuen. Inoizko denbora onena egin nuen, baina ni baino hobeto ibili ziren beste biak. Hor ez

dago zeresanik. Aurkariak zoriandu eta kito.

N. Taldeka ere, beste domina bat eskuratu duzu, sprint olinpikoan.

A. G. Hirugarren geratu ginen, baina Britainia Handiko taldeak ez zituen erreleboak behar bezala egin eta epaileek zilarrezko dominak kendu zizkieten. Hirugarren izatetik bigarren izatera pasa ginen. Orain arte, sprint olinpikoan ez genuen inoiz ezer egin baina sasoi ederrean geunden hirurak, Javier Ochoa, Roberto Alcalde eta ni. Horregatik pozik gaude egindako lanarekin.

N. Duela bi urte erretiratzekotan zinen. Baina inoiz baino hobeto zabil-tza. Non da zure muga?

A. G. Kontua da duela bi urte 10 orduz lanean ibili eta gero, denbora gutxi nuela entrenatzeko. Baina orain lantokiz aldatu dut eta denbora gehiago dut entrenatzeko. 2008an Txinan egingo diren Joko Olinpikoetara joatea da nire ametsa. Hori da nire helburua.

N. Suitzan egin duzun lanarekin dagoeneko eskuratuko zenuen Txinarako txartela, ala ez?

A. G. Datorren urtean erabakiko da



AMADOR GRANADOK BI DOMINA EKARRI DITU SUITZATIK.

hori. Bordelen jokatu den Munduko Txapelketan argituko da. Hala ere, nik uste dut tokia izango dudala. Pistan, munduko ranking-ean hirugarren nago. Askok hobeto beharko lukete nire atzetik daudenek. Ni itxaropentsu nago baina Bordelen argituko dela uste dut. Etxetik gertu dagoenez, txapelketa baino lehen Bordelen bertan entrenatu ahal izango dut.

Ika-mika !

Zubietako alkatearekiko atxikimendua

Bhean sinatu dugunok babesa eskaini nahi diogu Zubietako alkate Imanol Azpiroz 2006-09-22ko NOAUA!n Luismari Ormaetxeak bere aurka botatakoen aurrean.

Imanol Azpirozek lan eskerga egin du azken hilabeteetan errauste plantarik egin ez dezaten, ez Zubietan eta ez beste inon. Alkatetza-funtzioak betetzeaz haratago, makina bat ordu sartu ditu erraustegien zentzugabekeria eta arriskuak salatuz eta alternatibak landuz eta proposatuz, beti ere

Erraustegien Kontrako Koordinadora-rikiko lankidetzan. Horren guztiaren jakinaren gainean eduki gaitu zubietarrok eta lan hori guztia bihotzez eskertu nahi diogu zubietarrok gure alkateari.

Ez dakigu zergatik egin dituen Luismari Ormaetxeak gure alkatearen kontrako adierazpen zentzugabeko horiek; hori bai, errespetu maila minimoa ere ez du erakutsi eta horrek bere burua salatzen du. Gu ez gara hasiko mespretxu pertsonalekin baina idatzi honen bidez salatu egin nahi dugu

Luismari Ormaetxeak erraustegien kontu honetan duen erantzukizuna, bere alderdia baita errauste planta eraiki nahi duena. Eta horren aurrean, hemen duzu gure aldarrikapena, Luismari:

Alternatibak badaudelako, erraustegirik ez, ez Zubietan, ez Usurbilen eta ez beste inon!

Nekane Zaldúa, Edurne Arregi
eta beste 45 sinatzaile.

Elizako organoa, zahar berritzen

Gaztelu baten jabe zen frantziar organo zale batek, beste hainbatetan bezala, organo bat egitea agindu zuen 1907an. Urte batzuetan, bere esku izan eta gero, 1914an beste pertsona bati saldu zion. Baroi hark ez zuen sekula uste izango, “Mutin/Cavaillé-Coll” etxeak egindako musika instrumentu hura Usurbila ekarriko zutenik. Are gutxiago, ehun urteren buruan oraindik egin berriaren itxura izan eta funtzionatzen jarraituko zuenik.

Baina zahar berritzeko unea iritsi zaio. Dagoeneko lanean buru belarri dabilta, Delfo Frantziako enpresa bateko bederatzi langile Salvatore elizan. Piezaz pieza desmuntatuko dute musika instrumentua. Eskuz. Lanek, gutxienez, bi urte iraungo dituzte. Eraberrituta, begi bistakoa izango da aldaketetako bat. Organoaren kokaguneari dagokiona, 180 gradu biratuko baitute. Ondorioz, aldarera begira zegoen organo joleak orain musika instrumentuari begira jardun beharko du. Ikusteko modukoa ez izan arren, barne aldaketak ere izango dira. “Orain artean, 1.816 hodi zituen organoak. Lanak amaitu ondoren 2.000tik gora izango ditu” zehaztu du Juan Luis Atxega Organoaren Lagunak taldeko kide eta organo joleak. Horrez gain, abesbatza izaten den gune horrek ere aldaketak jasango ditu. Organo kaxa moztu eta haienztat lekua handituko da.

Pipi arrastorik ez organoan

Bestalde, fumigazio lan handia egingo dute Usurbilen diren langileek. 1971. urte inguruan organoa kokatua dagoen inguruko zati batzuk egur aldetik berritu egin ziren. Orain, zati horiek pipiak jota daude. Harrigarria badirudi ere, duela ehun urteko egur zatiek pipi arrastorik ez dute.

Lan horiek guztiak tarteko, abesba-



2007AN 100 URTE BETEKO DITU SALBATORE ELIZAKO ORGANOAK.

tza lekua erabiltezina izango da. Eguberriak igaro artean bederen. Eraberritze prozesu hori amaitu artean, halere, bertaratzen den orok organo doinua entzuten jarraituko du. Juan Luis Atxegak ekarritako organo txiki batek ordezkatzuko du mendeurreneko beste musika instrumentua.

2008AN BERRIRO MARTXAN

“Berriztatze lanak amaitutakoan, berriro piezaz pieza muntatu beharko dute organoa. 2008an berriro entzun ahal izango da”

Berriztatze lanak amaitutakoan, berriro piezaz pieza muntatu beharko dute. 2008an, makina bat urteetan zehar elizan entzun den musika berriro entzun ahal izango da. Organoarena.

Prozesu luzea

Hasita dagoen berriztatzea lau urteko bide luzearen fruitua da. Prozesuaren puntu honetara ailegatzeko, alde zuretik pauso ugari eman behar izan dituzte. Lehenik, ikerketa

sakon bat egin zen. Horren bidez, bi alor jorratu dituzte; batetik, organoari buruzko informazio historikoa jaso zen eta bestetik, gauzatzearen proiektuaren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa aztertu ziren. Bi komisio arduratu izan dira horretaz; komisio ekonomiko bat eta Gipuzkoako organista onenez osatutako beste lan talde bat.

Ikerketa egiteak bere logika du. Organoak denboraldi honetan zehar izan dituen eraldaketak aztertu nahi baitziren. “Garai batean, saloiko organoa zen” gogoratzen du Atxegak. Baina Salvatore parrokiara ekarri zutenean, egokitzapenak jasan zituen. Estilo tradizionalera moldatu zen.

Abian jarritako lan taldeek, organo-arekin zer egin erabakitze lehiaketa baterako dei egin zuten. Aurkeztu ziren hautagaietatik sei aukeratu zituzten. Organoaren azterketa eta berritze lanen kostuak zehaztuko zituzten proiektua aurkeztu behar zuten. Lehiaketako irabazlea Delfo enpresa frantziarra izan da. Bertako buru Denis Lacorre ospe handiko organista dugu. Lacorre eta bere lankideak egunotan parrokiako organoa desmuntatzen ari dira.

Usurbilgoa, organo entzutetsua

Organoa jotzearen truke 60 euroko eskaintza. Zaletu bat baino gehiago etorri da Usurbila, musika instrumentua ezagutu eta jotzera. “Donostiako Musika Hamabostaldiko eta maila handiko organistak egon dira” gogoratu du Atxegak. Japoniarrak, frantziarrak edota kanariar batzuek bisitatu gaituzte. Haiek parrokiako musika instrumentuari buruzko webguneak sortu dituzte.

Usurbildarrari kontrako bidea egitea egokitu zaionean, hau da, kanpora irten eta bere burua organo zaleen aurrean aurkeztu behar izan duenean, nongoa zen esan eta berehala, herriaren izena “Mutin/Cavaillé-Coll” etxeak egindako organoarekin lotu izan dute.

Kronologia

1907: baroi frantziar organo zale amorratu batek beretzat organo bat erakitzea agintzen du.

1914: baroi frantziarrak organo sal-tzen du.

1921: organo Usurbilgo Salvatore elizara ailegatzen da.

2006: berriztatze lanak hasi dira. Babesleak: Usurbilgo udala, Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza.

2007: organoak ehun urte beteko ditu.

2008: lanen amaiera.

Fitxa teknikoa

Egilea: “Mutin/Cavaillé-Coll”.

Data: 1907.

Organo mota: erromantikoa.



1920. URTEAN, GAZTELUN ZEN
USURBILGO ORGANOA.

Gipuzkoa, organo kontuetan aberats

Musika instrumentu hauei buruz dakitenek diote, Gipuzkoa dela organo erromantikoetan mundu mailan dagoen herrialderik aberatsena. “Nahiko erraz saldu zituzten” argitu du Atxegak. Usurbilgo parrokiak gain, 1920tik aurrera, urte gutxiren buruan, Gipuzkoako beste hainbat herriek gauza bera egin zuten. Tolosa, Andoain edota Ataun erosleen zerrendara gehitu ziren. “Organo handiak erosteko joera zegoen” argitu du Atxegak. Organo jole usurbildarrak herrialdean musika instrumentu hori eskuratzeko zegoen irrika azaltzeko teoria bat du. “Elizak botere handia zuen. Herrien artean norgehiagoka zegoen, besteak baino gutxiago ez izatearen borroka” zehaztu du. Ez zen gutxiagorako izango. Usurbilgo elizak lehendik ere

ba omen zuen eta bere organoa.

Frantziar saltzaileek musika instrumentu hobeak egingo ziren esperantzarekin eskaini zizkieten erosleei. Hanka sartzea egina zuten. “Organo onak, saldu zituztenak zirela konturatu ziren” adierazi du Atxegak. Ez ondoren egindakoak.

Ehun urteak gainean

“Goizegi izango da organoarekin ospatzeko” gogoratzen du Juan Luis Atxegak. Datorren urtean, 2007an, ehun urte beteko ditu eraberritze prozesu bete-betean izango den Elizako musika instrumentuak. Baina jada, duela bi urte, bi grabaketa saio egin ziren. Bat, Esteban Elizondok egin zuena Guridiren musikarekin. Bestea, ospe handiko organista frantziar batek egin-

dakoa Barnerren musikarekin. Atxegak argitu duenez, “mendeurrenean konpaktu bat kaleratu nahi dugu”. Bestalde, Usurbil, Ataun eta Deba herriak lotuko dituen proiektu bat finkatu nahian dabilta Organoaren Lagunak elkarteak. Kontzertu edota bidaien ziklo bat egin nahi da. Ataunen organo bat bada; Deban, berria egingo dute, barroko estilokoa. Hain zuzen, bertakoa organorik ez duen Gipuzkoako parrokiarik garrantzitsuena dugu. Azkenik, ehungarren urtemuga betetzear den organoari buruzko liburu bat kaleratzeko asmoa dute, berritze lanak hasi baino lehen egin zuten ikerketa historikoa baliatuta.

ARITZ GORRITI

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

LATAILLADE

GASA BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

ITURGINTZA

Ariztitxo 8, beheak · 943 363 348 · 609 888 021

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

Usurbilgo 18/98+ lan taldea ere

“Bat egin eguna” elkartasun jaian izango da

Bat egin eguna. Eskubide zibil eta politikoen aldeko elkartasun jaia. Horixe ospatuko da urriaren 8an Altsasun (Nafarroa), San Pedro zelaietan. Usurbilgo 18/98+ lan taldea ere bertan izango da. Bi helburu nagusi izango ditu ospakizunak. Batetik, aldarrikapen festa izango da eta, bestetik, elkartasun ekonomikoa izango dute xede antolatzaileek. Bertsolari, trikitilari, fanfarre eta abarrek alaituko dute aldarrikapen eguna.

San Pedro zelaietan egingo den jaialdian biltzen den dirua, 18/98 auziak sortzen dituen gastuei aurre egiteko izango da. Datu esanguratsu bat: auzipetuek Madrilera egin beharreko joan etorrien gastuak 25.000 eurokoak dira hilabetero.

Orain arte ezinbestekoa izan da gizartearen laguntza 18/98 auziko epaiketak sortu dituen gastuei aurre egiteko. Auzipetuek eskertu egin dute gizarteak auzipetuei eskainitako babes eta eskubide zibil eta politikoen alde egindako lana.

Era berean, erakundeen jarrera salatu dute. Izan ere, hitz politikak egin dituzten arren, ekintzarik ez dela egon nabarmendu dute. Beste behin, Espainiako Auzitegi Nazionalaren desagerpena exijitu dute.

Haur, gazte eta helduentzako egitaraua

”Bat Egin Eguna”-ri goizeko 11:00etan emango zaio hasiera eta arratsaldeko lehen ordurarte luzatuko da. Usurbilgo 18/98+ lan taldeak aditzera eman digunez, “bertan, haur, gazte eta helduentzako



URRIAREN 8AN OSPATUKO DA AUZIPETUEN ALDEKO JAIA ALTSASUN.

egitaraua izango da. Gaiteroak, Trikitilariak, haurrentzako gunea eta musika emanaldiak izango dira”.

Sarrera euro lekoa izango da, sarrera sinbolikoa izango da eta bertan enkante bat (subasta) bat jarriko da martxan dirua lortzeko.

Autorik gabeko eguna ez zen oharkabean pasa

Txokolate gozoa edanaz edota pilotalekuan ipini zituzten puzgarrietan saltoka ospatu zen iragan ostiralean, Autorik gabeko eguna. “Klimaren aldaketa” zuen aldarri nagusi, norbere autoa zentzuz ibili eta garraiobide alternatiboen erabilera bultzatzea helburu duen egunak. Herritar ugarik parte hartu zuen egun horretan antolatu ziren ekimenetan.



UDARREGIKO IKASLEEK TXOKOLATEA BANATZEKO ARDURA HARTU ZUTEN.

Urrian, KzGunea goizez zabalik

Hil berria, ordu aldaketa. Urrian KzGunea goizez zabalduko da: 9:00-13:00 artean. Eskuragai da, gainera, Herritar Txartela, ordenagailu bidez administrazio publikoarekin zenbait tramitazio egiteko aukera ematen duen doako ziurtagiri digitala. Txartelak transakzioen segurtasuna, konfidentziasuna eta egiazkotasuna bermatzen ditu. Eskaerak eta informazio gehiago KzGunean.

Zendoia

Kale Nagusia 35 · 943 37 40 71

txirriStra

KONTSEJU ZAHARRA 13
943 360 400

pintxoak
ogitartekoak
platea konbinatuak

TABERNA

MIKEL IZAGIRRE
ELEKTRIZITATEA

943 365 095
609 068 111

GOIZ ARGI ETXEA 137 KALEZAR

Artzabal baserria

zahar egoitza berrian bilakatuko da

Aurreikuspenak betetzen badira, 2008an zabalduko da zahar egoitza Artzabal baserrian. Laster hasiko dira lan horiek. Amaitzeaz daudenak Harane futbol zelaikoak dira. Hala aitortu digu Luismari Ormaetxea alkateak.

NOAUA! Artzabal baserria zahar egoitza bihurtzeko proiektua onartu berri da udalbatza plenoan. Nolako itxura izango du egoitza berriak? Bide batez, datorren urterako prest izango dela uste al duzu?

Luismari Ormaetxea alkatea. Eusko Jaurlaritzak monumentu izendatu berri du Artzabal eraikina. Horrek atzerapena suertatuz gain egingo dena kontu handiarekin, eraikina mimatuz egitea suposatuko du.

Eraikinak hiru solairu izango ditu, igogailu batez loturik. Behe planta taberna-jatetxe erabilerarako izango da nagusiki. Lehen solairua liburutegi kokor bat eta hainbat gela ekintza ezberdin egiteko eta bigarren solairua (ganbara) erabilera-anitzetarako gela. Gaur egungo zahar-egoitzako zerbitzuak mantenduko dira baina era erosoago batean eta 1.000 bazkideentzat era erakargarriago batean. Obrak aurtengo azaroan hastea espero dugu eta urte eta erdiz luzatzea aurreikusi da. Monumento bat zaharberritzeak ezustekoak izateko arriskua dakar. Hala eta guztiz ere, 2008ko Santixabeletarako ea martxan dugu.

Harane futbol zelaia

N. Harane futbol zelaian belar artifiziala jartzen hasi dira. Zergatik atzeratu da hainbeste eta noizko izango da martxan bete-betean?

L. O. Kiroldegia ondoen kirol instalakuntza garestiena izango dugu futbol zelaiaren berritzea. Hiru faseetan burutzen ari da: lehena lurra egokitu, bigarrena belarra ipini eta azkena alda-



2008AN ZABALDU NAHI DA ZAHAR EGOITZA BERRIA ARTZABALEN.

gela berriak. Horrelako obra handi batek atzerapenak izatea ohikoa da. Batzuk administrazioari leporagarriak: aurrekontuak garaiz ez onartzea, kontratazio prozesua motela izatea; beste batzuk ezusteak: obra egiterakoan arazoak, euri-jasak; beste batzuk egin behar duen enpresari leporagarriak.

Kasu honetan atzerapen nagusia lehen faseko obra egiteko enpresarik ez zela agertu da, zergatia? Petrolioaren prezioa %70 igo zela eta beraz proiektuko prezioak zaharkituak geratu zirela. Kontuan izan futbol zelai osoa asfaltatu dela. Bigarren fasearen atzerapena esleipena egin den enpresari leporagarria, bere produkzio arazoengatik ez dira hitzartutako epeak betetzen ari. Gainera dena ondo jartzeko euririk gabeko 12 egun behar dituzte. Hirugarren fasea martxan dugu jada. Zein enpresa egingo duen erabakitze prozesuan gaude eta aste batzu barru hasiko dira lanean. Konziente gara guzti honek futbol taldeei sortu arazten ari zaizkien eragozpenak, baina aste pare batean normaltasunez entrenatzen aitzeko aukera izango direlakoan nago.

Sekañako etxebizitzak

Aginagako Sekaña izeneko eremuan 88 etxebizitza egingo direla irakurri genuen egunkari batean. Honi buruz ere galde egin diogu alkateari. Luismari Ormaetxeak azaldu digunez, "lehenik eta behin argitu DVko berria hankasartze monumental izan dela. Gure herrian toponimoak errepikatzen dira han eta hemen. 88 etxebizitza horiek A-34 eremuan eraikiko dira, Sekaña izenaz ere ezaguna, eta Kale Nagusia eta San Inazio kalearen artean dagoena. 88 etxebizitzak "libreak" izango dira. Aurreko korporazioak udal lurretan etxebizitza libreak bakarrik eraikitzea erabaki zuen eta horrela jasorik daude Arau Subsidiarioetan. Beste kasu batzuk ditugu adibide gisa: Kanposantu-azpi, Pikaola edota Portalmuxu-bera Kalezarren. Bere garaian udalak aukera izan zuen udal lur horietan beste mota bateko etxebizitzak egitea baina ez zuen horrela erabaki".

“Genozidioa izan zen”

Iñaki Egañak 36ko gerrari buruzko hitzaldia eskaini zuen Sutegin

Isilpean egon den gaia izan da”. Hala zioen Iñaki Egaña historialariak Sutegin Gerra Zibilari buruz eskaini zuen hitzaldian. Guda haren 70. urteurrenaren haritik, orduko gertakariak gogoratu eta gudariak omentzeko Aitzaga Kultur Elkartek antolatutako azken ekitaldiak herritar ugari erakarri zituen. Gerra Zibilaren aurreko egoera edota egungo ikerketak zertan diren hizpide izan zituen Egañak.

Hiru urte iraun zuen guda hartan, 5.500 herritar fusilatu zituzten Hego Euskal Herrian. Horietatik 1.100 inguru Gipuzkoan. Usurbilen kasuan, urte haietan biztanleriaren bilakaeraren adierazgarri izan daitekeen erroldak ditugu; 1920koaren arabera, 2.042 biztanle bizi ziren herrian. 1940an 2.030. Egañak hitz batekin argi definitu zuen egoera hura: “Genozidioa izan zen”.

Boto aldaketa adierazgarria

Gerra Zibila piztu aurretik, Usurbilen izan ziren azken hauteskunde saioek utzitako panorama politikoren berri eman zuen. Herrian, EAJ eta karlisten alderdiek zuten boto kopururik handienak. Baina boto aldaketa nabarmena izan zen urte horietan. 1931n, II. Errepublika hasieran, Madrilgo Kongresurako izan ziren hauteskundeetan, aipatutako alderdietako bakoitzak 421 boto jaso zituen. Gerra aurreko azken hauteskundeetan, EAJ alderdiak 600-700

boto eta karlistek 200 boto inguru jaso zituzten. “Laurehun herritarrek botoa aldatu zuten”, zehaztu zuen Egañak.

Hain zuzen, 1936ko otsaileko hauteskundeetan kokatzen zuen Egañak estatu kolpearen abiapuntua. “Uste gabeko porrota izan zuten eskuineko indarrek. Ondorioz, estatu kolpea prestatzen hasi ziren” gogoratu zuen historialariak. Uztailaren 18an izan zen Gerra Zibilari hasiera eman zion estatu-kolpea. Horren aurrean, errepublikarrek ez ziren besoak gurutzatuta geratu. “Gipuzkoako hainbat industria guneeetan, hurrengo egunerako talde errepublikarrak osatzen hasi ziren” aipatu zuen Egañak.

Urte hartako udazkenerako Gipuzkoa frankisten esku zegoen. Baita Usurbil ere. Irailaren 17an, tropa frankistak Mendizorroztetik barrena sartu eta udal berria osatu zuten. Bost usurbildar fusilatu zituzten. Beste batzuk herritik hanka egin zuten.

“Biloben iraultza”

Gerra Zibila bizi izan zuten askok isilpean gorde zituzten garai hartan bizitako miseriak. Transmisio falta hori tarteko, haien seme-alaba askok ere ez dute orduko gertakizunen berri izan. Biloben belaunaldia izan da hariak mugitzen hasi dena. “Biloben iraultza” Egañaren hitzetan. “Bilobak hautsi dute isiltasuna. Haiei esker, gerra gaia mahai gainean jarri da”, baieztatu zuen Egañak.



JENDE ASKO BILDU ZEN
IÑAKI EGAÑAREN HITZALDIAN.

Historialaria Arantzadirekin elkarlanean aritu da fusilatutako gorpuk berreskuratze lanetan. Hala, klandestinitatean lehendik ikerketak egin diren arren, duela hiru urte zaldibiar batek Arantzadikoei fusilatuen hilobi bat zegoela kontatu zien. Ikerketa luze baten abiapuntua izan zen. Ordutik, laurehun deitrik gora jaso dituzte.

Leku ezberdinetako artxibategiak informazio iturri emaritsuak izan dira. “Ia kartzeletan egon ziren euskaldun gehienen berri izan dugu” baieztatu zuen historialari donostiarrak.

Ikerketek aurrera jarraituko dute.

ARITZ GORRITI

ERRAZKIN
IGELTSERITZA
OROKORRA
kale Nagusia, 1
Tel./Faxo: 943 365 125
Móbil: 629 420 565 - 649 435 470

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 - ASTEASU
943 69 68 52 - 620 800 186

Industri eta iragarki
SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA

943 371 954
UGALDEA PDL.36.2-USBIL

Kirol-ikastaro desberdinak kiroldegian

Oiardo kiroldegian kirol ikastaro desberdinak egiteko aukera izango da datozen hilabeteetan. 2006-2007ko ikasturte honetan ere azken urteetako eskaintza beretsua egin du Usurbilgo Kirol Patronatuak, baina bada berrikuntzarik ere. Izan ere, lehendabiziko aldiz azken aldian moda-modan jarri den Pilates metodoa egin ahal izango dute kiroldegiko erabiltzaileek gimnasia edo aerobika egiten den moduan.

Astearte eta ostegunetan goizeko 9:00etatik 9:50era eta astelehen eta asteazkenetan arratsaldeko 18:00etatik 18:50era Pilates metodoa egiteko aukera izango da Oiardo kiroldegiko gimnasioan. Norbere gorputzaren ezagutza eta zaintza interes duen edonori zuzendua dago. Heldu, gazte, emakume, gizon, kirolari, ez kirolari, zaintza berezia behar dutenak edo behar ez dutenak ere egin dezakete azken aldian modan jarri den modalitate hau.

Pilates metodoa oso gorputz-hezkuntza osatua da. Metodo honekin gorputza osotasunean lantzen da, muskulatura sakonenetik txikieneraino. Bertan, adimenak eta gorputzak parte hartzen dute. Gorputza eta burua entrenatzeko modu berritzaileak har daiteke, 80 urte baino gehiago duen metodoa izan arren. Pentsamendu eta intentzioek gorputzean duten eragina nabarmentzen ari den gizarte honen ikuspegi berriarekin bat datorren ekintza fisikoa da. Bere sortzailea Joseph Pilates izan zen eta gaztetan izan zituen osasun arazoak era-



PILATES METODOA ESKAINIKO DA LEHEN ALDIZ KIROLDEGIAN.

mangarriago egiteko ariketak bilatu zituen bere gorputzean esperimentatuz.

Aerobika ere egin ahal izango da aurren. Astelehen, asteazken eta ostiraletan, goizean 9:00etatik 9:50era eta arratsaldean 19:00etatik 19:50era aerobik saioak izango dira kiroldegiko gimnasioan, baita astearte eta ostegunetan 19:30etik 20:20era ere. Gimnasiako ikastaroak, berriaz, astelehen, asteazken eta ostiraletan izango da 9:00etatik 9:50era. Jubilatuentzat bideratutako saioei dagokionez, astearte eta ostegunetan izango dira 10:00etatik 10:50era.

Igeriketari dagokionez, urtero bezala eskaintza zabala aurkeztu du Kirol Patronatuak. Haurtxoentzat ikastaroak izango dira astelehen eta asteazkenetan nahiz astearte eta ostegunetan 16:45etik 17:30era. Asteburuan, aldiz, bi ikastaro

izango dira: 10:15etik 11:00etara bata eta 11:00etik 11:45era bestea. Uretara moldatzeko ikastaroak egunero izango dira astelehenetik ostiralera 17:30etik 18:15era eta 18:15etik 19:00etara. Azkenik, ur-ludotekak astean bi aldiz izango dira, igeriketa eskola astelehenetik ostegunera 19:00etatik 19:50era eta igeriketa gidatuak astean bi aldiz 20:00etatik 20:50era.

Giharketan ere monitore bat izango da astelehen eta asteazkenetan 10:00etatik 11:00etara eta 20:00etatik 21:00etara. Aholkuak eta zuzenketak egin eta makinan bakoitzaren erabilpenaren berri izan nahi dutenak edo prestakuntza berezi bat egin nahi dutenak horretarako aukera izango dute giharketa gelan.

JOSU ARANBERRI

San Pedrok TKE ligara igotzea lortu du

Berdaitz Larrarte, Urko Manterola, Iñaki Portullarrume eta Alex Udabe herriko arraunlariak merezitako atsedena izango dute aurtengo honetan. San Pedrok traineruko taldekideekin batera TKE ligara igotzea lortu zuten pasa den asteburuan.

Denboraldia edeki borobildu dute. Bi igoera faseetako lau estropadak irabazi dituzte eta datorren urtean traineru onenen artean izango da San Pedro. Gustura zeuden Portugaleten azken estropada amaitu ostean, baita Jon Uribe beraien jarraitzailea ere.



Egin kontu !

Urriaren 6an Agerialden, Usurbilgo Dantza Taldeak deitutako bilera

Usurbilgo Dantza Taldeko kideak lanean hasteko prest dira. Izena emateko epea zabaltzen dute. Talde ezberdinetako ordutegiak zehazteko, urriaren 6an bilera bat egingo dute Agerialden.

LH 1 mailatik aurrerako neska-mutilek dantza talde honetan har dezakete parte.

Euskal dantza ezberdinak irakatsiko dira. Entseguetan ikasitakoa,

jendaurrean plazaratzeko hainbat aukera izango dira gainera. Herriko auzo ezberdinetako festetan, batez ere. Ikasturte amaieran irteera bat ere egingo dute. Izena eman nahi duten neska-mutilek ikastolan bertan egin dezakete. Urriaren 6an, talde ezberdinen ordutegiak zehazteko bilera egingo da Agerialden. 16:30ean hasiko da bilera hori. Egun horretan ere izena emateko aukera izango da.



ARRATSALDEKO 16:30EAN HASIKO DA
AGERIALDEN EGINGO DEN BILERA.

Eguneko goardiako farmaziak

Irailak 28, osteguna
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Irailak 29, ostirala
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Irailak 30, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Urriak 1, igandea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Urriak 2, astelehena
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Urriak 3, asteartea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Urriak 4, asteazkena
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Urriak 5, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Urriak 6, ostirala
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Urriak 7, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Urriak 8, igandea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11,
Hernani. 943 336 077 (Urte osoan).

2006ko egutegi osoa: www.noaua.com

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55* / 9:30(T) / 13:15(T) /
14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
7:15* / 9:00 / 12:45(T) /
13:45* / 18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45 /
15:15(T) / 21:35(T)

(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T) / 13:30(T) / 15:30(T) /
21:35 (T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T) / 13:00(T) / 15:00(T) /
21:00 (T)

* Eskola egunetan.

T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

MAHUKA
ETXEBESTE KALEA, 3. 943 361 106

Ilumen aurkituko duzu
gizon eta emakumezkoen
MODAKO ARROPA

ITURGINTZA


JOSEBA ARANGUREN

☎ 943 830 072
☎ 659 883 912

J. ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA

BIZKARRA 1, 1. EBK 943372937 • 659602789

I n t e r n e t - z r n u n l k



Telf: 943 36 61 21

Alperroburu, 1

Egin kontu !!!

- “Bat egin eguna” Altsasun. 11:00etatik aurrera.

Txokoaldeko Erroizpe elkartek bere bazkideei urteko Batzar Orokorra egiteko deialdia luzatu nahi die. Batzarra urriaren 8an egingo da. Lehenengo deialdia 11:30ean eta 12:00etan bigarrena.

Batukada ikastaroa Zumarten

Era berean, abesbatzari bultzada berri bat eman nahi zaio eta horregatik abesbatzan kantatzeko aukera irekita dago oraindik.

Oiartzunen dena prest dute Kilometroak festarako

ALAITZ ETA MAIDER BIKOTEAK
OSATU DU AURTENGO KANTUA.

Knkl
- L ntz r
- Gz n zk n rr p
- ll ur ntz k
- Fix r k h r
tuzum k
Zubiaurrenea, 3 33 17 7



Ileapaindegia eta Solarium-a
Ioli Lizarralde
 Estetika Zentroa Merche Casaresen eskutik.
 Zubiaurrenea, 5B ☎ 943 361 971

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

SAHATATEKO
**EUSKAL
OKELA**



CARRE DE VINO
DE CALIDAD
DEL TRAS VASCO

LK T
UT ZE ITZU

F UT K
ZKI K
ETXEK
UKTU K
K NGEL TU K

h k k l , 4
T H 433 5742

ETXEK



Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa
 Aitezarra kalea, 1
 20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
 Faxa: 943 36 62 92

ETXEBIZITZA

- Usurbilen logela bat alokatzen da. 679185102.
- Usurbilen hiru logelako etxe bat alokatutzen da. Abala eskatuko da. 649261704.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tf: 630 032 779.
- Usurbilen amueblatua dagoen pisu bat alokatzen dut. Interesatuak deitu 943362088 telefonora.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Galtzaragañan 18,95 metro karratuko garaje itxia salgai. Interesatuak deitu 943361219 telefonora.
- Garaje itxia salgai, 18 m2. Merkea. Puntapax bidean. Telefono zenbakia: 610 29 18 64 (Carlos).
- 49 zm-tako Honada moto bat daukat salgai. Kondizio onetan eta modu onean. Interesatuak deitu 943364554 telefonora
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Bi emakume eskaintzen dira goizez bi orduz lan egiteko. Deitu 659879040 / 943365737 telefonora.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da, orduka zein egun osoz. 610 669 335.
- Asteburuan lan egiteko prest nago. Larunbat arratsalde-etan, igandetan eta astelehen goizetan. 686 120 402.
- Esperientzia duen neska umeak zaintzeko prest. Edozein ordutan lan egiteko. Telefono zenbakia: 660 041 361.
- Udan umeak zaintzeko prest nago. 687 651 605.
- 17 urteko mutil bat naiz eta ekainetik irailera bitartean Usurbil eta inguruetan gustora lan egingo nuke. Eskaintzen bat baduzu deitu 650491552.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.
- Bi neska lizentziatu eta esperientziadunak LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularrak ematen ditugu euskaraz zein gaztelaraz. 653711574.
- Emakume bat eskeintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.

- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. Telefono zenbakia: 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- Olarrondo jatetxean astebukaeratan barran eta komedorean lan egiteko pertsona bat behar da. 943360376.
- Pertsona bat behar dugu etxeko lanak egin eta haur bat zaintzeko. Lau orduz, goizeko 7:30etik 11:30era. Telefono zenbakia: 943 37 06 91 (ilunabarrean).
- Irailetik aurrera pertsona bat behar dugu Zubietan haur bat zaindu eta goizez etxeko lanak egiteko. 943 36 71 29 / 660 779 160.
- Jatetxe batean garbitasun lanak egiteko emakume bat behar dugu. Interesatuak deitu 943 36 27 13.
- Arratsaldez etxeko lanak egiteko emakume baten bila gabilta 645403905.
- Zerautuko malekoian udan lan egiteko zerbitzariak behar dira. 661972670.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Hiru hilabeteko hiru zakurkume daukagu oparitzeko. 943 36 33 06.
- Benta tabernan lan egin nahi baduzu deitu: 685757962.
- Citroen Berlingo bat, kamara isotermikoduna kondizio honetan daukagu salgai. 676453176.
- Patri jatetxe inguruan urrezko (urre koloreko) pultsera bat aurkitu da. Galdu duenak udaltzainetan galde.
- Tren geltoki inguruan Nokia telefono mugikor beltz bat aurkitu da. Galdu duenak udaltzainetan galde dezala.
- Snow egiteko tabla bat fihazioekin salgai. 679185102
- Larunbatean Puntapax 22-24 artean dortoka bat agertu zen. Udaltzaingoak jaso eta animalien babeslekura eraman du.
- Terrenoa landatzeko erosi nahi dut, edifikatzeko ez. Tf: 943 36 11 09.
- Antxumeak eta ibiltzeko zaldi bat saltzen ditut. Interesatuak deitu: 657633461.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. Emaiza profesionala, modu onean. 617242660 / apore@euskalnet.net
- Gazteentzat lokal bat alokairuan hartuko genuke. 667 694 049.
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa, prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila erosiko nuke. 605 72 48 24

JAIOTAKOAK

- Nahikari de la Cruz Brea Irailaren 17an.
- Aitziber Sanchez Uncilla Irailaren 17an.

Oharrak,
Txerrimunik ordainetan
doaneko atalak dira

Datorren alea: urriak 6.

Zorion-agurak urriaren 2a baino lehen ekarri edo bidali.
erredakzioa@noaua.com

NOAUA! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20170 Usurbil

Telefono interesgarriak

- Udala.....943 37 19 51
- Udaltzaingoa.....943 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak943 37 01 48
- Eusko Tren.....943 47 09 76
- Anbulategia..... 943 36 20 13
- Udarregi Ikastola..... 943 36 12 16
- Udarregi (Agerialde).....943 36 38 95
- Haur Eskola (Kalezar).....943 37 40 61
- Oiarde kiroldegia.....943 37 24 98
- Zumarte943 37 15 94
- Etumeta euskaltegia943 37 20 01
- Taxi geltokia.....943 36 21 78
- D.Y.A.943 46 46 22
- Gure Pakea.....943 37 32 28
- Gure Elkartea.....943 37 17 51
- Arrate Egoitza.....943 36 63 40
- Bake epaitegia.....943 37 23 36
- Oa farmazia.....943 37 60 76
- Iturralde farmazia.....943 36 33 95
- Zubietako Batzarra.....943 37 20 77
- Argindarra (Iberduero).....943 47 09 76
- NOAUA! aldizkaria.....943 36 03 21
- Ertzaintza.....112
- Suhiltzaileak.....112
- Larrialdiak.....112
- Anbulantziak.....112

Kalkos kopisteria
FOTOKOPIAK
zuri-beltza • koloretan
BANDERA
SALMENTA
PINTORE KALEA 7 • LASARTE-ORIA
943 376 424 • 943 376 155 (FAX) kalkos@copisteriakalkos.com

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

LAUKOTE
OKINDEGIA
KAFETEGIA
Puntapax kalea, 16 behe
(Artzabal) 943 36 09 80

Kima
MASAJE LEKUA
Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
Kale nagusia, 44- behe
LASARTE-ORIA
TEL. 36 61 97

I lts r tz
Mugikorra: 649435475
649435476
943 363370- 361439

JOSUE
ARANZAZISTROKI
IGELTSERITZA
eta
PINTURA
Juan Jose enea, 6 Kalezar
Telf: 606 37 81 05

ABERASTU ZAITEZ! EGIN ZAITEZ BAZKIDE

NOAUA! Kultur Elkarteko bazkide egiten bazara,
"Usurbilgo baserriak eta baserritarrak" liburua jasoko duzu doan
Usurbildarrentzat egindako aldizkaria



BAZKIDETZA ESKAERA

IZEN DEITURAK:

JAIOTZE DATA:

SI-XIIA:

NA ZENBAKIA:

HELBIDEA:

HERRIA:

POSTA KODEA:

BIZIBIDEA:

TEL:

E-MAIL:

BANKETXEA:

KONTU KORRONTEKO ZKIA (2000000000):

Bazkide KUOTA: 36 € (Uztallean kobratuko da kontu korrontetik)

elkartasuna@noaua.com • ☎ 943 360 321



matxakak



tolareak



ontzi
herdoilezinak

Alkartasuna kooperatiba Sagardogintzarako tresneria



tolare
hidrauliko eta
pneumatikoak

Etxean sagardoa egiteko: zare, kixki, matxaka, tina, haritzeko barrikote, gaztainezko
barrika, buko herdoilezinak, eskuzko tolareak, hidrauliko eta pneumatikoak ere bai,
dentsimetroa, alkoholimetroa, masilla, botilak, botilak garbitzekoak eta betetzekoak,
kortxoak, enkortxadorak, etiketatzekoak, alanbikoak...



barrikak



Botilaratzekoak



botilak
garbitzekoak

Alkartasuna Nekazaritza Kooperatiba Elkartea

alkartasuna@usurbil.com • Ugarte industrialdea 12. USURBIL • ☎ 943 361 114

www.noaua.com

Albisteak edizio jarraituan

Zorion-agurren tartea

Eztabaida foroak

Agenda

Zerbitzuak

Eguraldia

Aldizkaria, on line

Informazioa eskura

Usurbil ezagutu: Usurbili buruzko informazioa zure eskura

Zerbitzuak: goardiako farmazien egutegia, garraio publikoak, telefono eta helbide interesgarriak

Jaiak iruditan: Usurbilgo jai guztiak argazkitan.

Partehartzailea

Edonor izan daiteke berriemaile. Albisteak sarean ipintzeko prestatu dugu webgunea.
E-posta bat idaztea bezain erraza da.

Aldizkaria on line

2003ko irailetik honako NOAUA! aldizkari denak sarean daude.

Klik egin "Jaso aldizkaria zure posta elektronikoan" atalean, hutsuneak bete eta aurrerantzean etxean baino lehen jasoko duzu aldizkariaren on line bertsioa zure posta elektronikoan.

Usurbildarrentzat eginiko webgunea